


MENDI EZKUTUAK GAILURREKO ATEAK IREKI ZITUENEOA

HIDDEN PEAK (8.068 m.)

Koke Lasa



- Aizpea, maitia, berandu da.
- *Kontatu ipunia, aitaxo.*
- Mendi ezkutua aurkitu genueneko, nahi duzu?
- *Zein mendi ezkutu, aitatxo?*

-Urruti-urruti Pakistanen dagoena, zure baloiko "mapa mundian" bila dezakegu bihar. Hidden Peak izenez ezagutzen da. Oso mendi altua da, 8.068 metrotakoa, eta nahiz eta 10 altuago egon munduan honek edertasun berezia du eta, gainera, ezkutua dagoenez jende gutxi joaten da; guk hori bilatu nahi genuen.

-Bale, kontatu

-Bada, badakizu aitaxo kanpoan izan dela hilabete t'erdi eta gogoratzen zara Donostian agurtu gintuzun egun hartaz, Rafa Segurakoa, osaba Rafa esaten diozu zuk, eta Txetxu Urnietakoa ere ezagutzen duzu eta ni neu. Zu pozik zinen hainbeste globoren artean... Gero Madrilen Luisekin elkartu ginen, aurreko astea gure etxean pasatu duenarekin, oso altua eta bizarrarekin eta si-si-no-no esaten zuen, baina zein ondo konpondu zareten, ezta? Bada, denok hegazkina hartu eta oso urrutira joan ginen, Islamabad-era, Pakistaneko hiriburura. Izugarritzko beroa egiten zuen eta berehala sartu zitzaigun bertatik abiatzeko

gogoa, baina aurretik lantxo batzuk geneuzkan. Lurralde haietan mendi bat igotzea ez da hemen bezala; baimena eskatu beharra dago bertako agintariei eta diru asko ordaindu, gainera. Eta mendi ezkutua urruti samar zegoenez eta egiteko bi hilabete beharko genituela uste genuenez, pisu handia eraman beharra geneukan: janari, kanping dendak, erropa asko, e.a. Islamabad-en autobusa alokatu genuen eta Skardu herrira eraman gintuen eta bertatik hiru Jeep-etan Tongaleraino. Bidea ibai ondotik zihoan gehienetan eta oso bide kaskarra eta arriskutsua zen, paisaia oso lehorraz inguratirik, baina tarteka halako herrixka batzuk, berdetasunez jantzita ikusten ziren mendi magaletan: oasi txiki batzuk dira. Eta Tongaletik aurrera oinez abiatu beharra izan genuen karga guztiarekin.

-Bidoi urdinak beteta?

-Bai, bidoi urdinak, hemendik bidalita geneuzkanak eta horiez gain han bertan erositako beste gauza asko.

**Hidden Peak
kanpobasetik**

-Guk bidoiekin jolas egin, buelbaka-buelbaka, amaxokin eta, Leirekin eta...

-Bai, jolas berri bat asmatu zenuten eta nola itxi ere ikasi zenuen, kandadua eta guzti. Bada, dena eramateko bertako jendeari laguntza eskatzen zaio. Lan hori egiten dutenei porteatzaile deitzen zaie eta guk 35 behar genituen, baina bide guztian ia herririk ez dagoenez, porteatzaileen janaria ere eraman behar da eta hala 48 kontratatu genituen azkenean gurekin joateko. Eta porteatzaileen buruak, sirdarrak, mendi ezkutuaren oinarria iristeko zortzi egun beharko genituela esan zigun. Horrela hurrengo egunean irten ginen denok, nahiz euria ari eta hala jarraitu egun batzutan, batzutan euria bestetan eguzkia, lainoa gehienetan eta batean baita elur piska bat ere.

-Elurra. Elurrezko panpina egin lehen guk.

-Bai, neguan behin bakarrik egin zuen elurra gure etxean, Aizkorri gehiagotan, ezta? Bada, han piskanaka altuera irabazten gindoazen, hasieran ibai ondotik gora eta gero izotzeko glaziar gainetik eta inguruko mendiak geroz eta altuagoak ziren eta zoragarria zen lainoa kentzen zuenean mendi haien ederra ikusi ahal izatea. Egutero 5 edo 6 orduko ibilaldiak egiten genituen eta gero haiei begira makina bat ordu pasatzen genuen. Goizean goiz xamar jeikitzen ginen eta gosaltzeko tea "chapati"ekin, taloen antzekoa, mermelada eta gaileta batzuk jaten genituen. Kanpamenduan, dendak eta, desmontatu, motxilan trasteak sartu (lozakua, argazki makinak, erropa, kantiplora, buruko linterna eta hamaiketakoa) eta lasai lasai oinez abiatzen ginen. Gehienetan porteatzaileak gu baino azkarrago joaten ziren, nahiz eta karga handiagoa eraman, 25 K. Oso indartsuak ziren eta oso ondo egokitu-ta paraje haietara, bertakoak baitira. Gu berriz mantxo-mantxo, hobeia baita alturak kalterik ez egiteko. Ura ere asko edaten genuen, bidean zehar errekatxo ugari jeisten baitzen, gu baino beharago zegoen Braldo ibai handira. Bide erdian ordubate inguruko atsedenaldia egiten genuen, hamaiketakoa egin eta berriro bakoitza bere kasa jarraitzen zitzaion bideari, galtzeko arriskurik ez baitzegoen. Arratsaldean lehenengo ordutarako iristen ginen goizean erabakitako lekuraino eta berriro ere kanpamendua montatu, afaldu eta inguruaz disfrutatzen genuen.

-Eta lo-lo goxo-goxo?

-Ez etxean bezain goxo, baina ezta gaizki ere. Musutxo asko bidaltzen nizuen eta beti pentsatzen nuen ondo izango zinetela eta ez dago alde horretatik lasai ibiltzea bezalakorik; horrekin zuek adina ez nau inork lagundu, poxpola.

-Orain kontatu ahuntzarena

-Bada, lehenengo egunean, hango ohi-tura denez, bidean aurkitzen den azkeneko herrian, Askolen, ahuntz bat erosten da hirugarren egunean, Paiju delako paraje batean atsedean egunean porteatzaileek festa antola dezaten; ahuntza hil eta banatu ondoren jan egiten dute eta gau aldera abestu eta dantzatu. Festa horren arrazola da hurrengo egunean glaziarrean sartzen dela, beraz, azkeneko arbolaria a probetxatzen da ahuntza erretzeko. Hasieran ahuntza erosi eta lepotik soka ezarri eta gutako batek eramango genuela tzandatzuz pentsatu genuen. A zer nolako sorpresal biren artean ere ez genuela eramango! Txikia zenez lurrean etzan eta adarrak edozein zirrikitan sartzen zituen eta ikaragarriko indarra egin behar zen metro batzuk mugitzeko. Halako batean gurekin

Tongall. Trekina- ren abiapuntua.



zeturten porteatzaile batek diru truke eramango zuela esan zigun. Ibili ibilian halaxe erabaki genuen eta, berriz ere, a zer nolako sorpresal Bere eskutan utzi, txapati piska bat eman eta salto eta brinco bere atzetik txintxo-txintxo han joan zen! A zer nolako kalekumeak zuek!, esango zuen norbaitek.

-Akerrak adarrak okerrak ditu

-Honela, sirdarrak esan bezala 8 egune-tan iritsi ginen mendi ezkutuarren oinarria, baina lainoa zen nagusi eta sinetsi egin behar izan genuen. Bertaraino 33 porteatzaile ailegatu ziren, besteak janaria bukatzen zihoan eran agurtu egiten genituen dirua eman eta gero. Azkenekoekin ere berdin egin genuen. Batzuek helbidea utzi ziguten atera genizkien argazkiak bidaltzeko. Gero bakarrik gelditu ginen, Txetxu, Rafa, Luis eta ni, eta ofiziala eta sukaldaria. Beranduxeago konturatu ginen aurrerago beste mendizale talde bat bazela: korearrak ziren. Jakin behar duzu, ttiki, mendi handi horietan munduko edozein bazterretako jendearekin topa daitekeela. Gure kanpamendutik ordu laurdenera, esate baterako, esloveniar batzuk zeuden eta denbora dexente zeramaten mendi ezkutua aurkitu nahiean.

Egun hartan denbora guztian mendi ezkutua egon behar zuen lekura zuzentzen genituen begiak, hura ikusi nahiean, eta halako batean lainoa altxatzen hasi zen eta... bertan, aurrez aurre azaldu zitzaigun

benetan ederra zen piramide zuri hura: Hidden Peak. Hainbeste aldiz ametsetan ikusitako ezkutuko mendia aurrean genuen eta helburua bere gailurrera igotzea zen.

-Goraino, goraino?

-Bai, eta hurrengo egunean 1.kanpamendu aldera irtengo ginela erabaki genuen eta eramateko zeuden gauzak prest utzi genituen. Goizeko 4retan jeiki eta nahiz hotz handia izan zerua izarrez bete zegoen. Gosaldu ondoren, 5ak aldera, eguna argitzen hasi zeneko oinez gindoazen izotzez inguratuta; izotz puskek geroz eta handiagoak ziren eta bidean zuloak ere asko ikusten ziren, batzuk beldurgarriak, bukaera ez baitzizaien ikusten. Batzutan bidea nondik zihoan ere ez genuen bilatzen; badaezpada ere laurok lotuta gindoazen, bata erorita ere besteak eusteko moduan. Ordu batzuk barru eguzkia berotzen hasi zen eta halako batean zeharkatu genuen tarte arriskutsu hura. Handik aurrera bidea errazagoa zen baina espero ez genuen arriskua genuen gure gainean: izotzez inguratuta baina eguzkiak kixkali beharrean. Generaman ura ere laister bukatu zen, Luis pirrilerarekin zihoan eta denok izerditan blai, arnasa hartu ezinik. Espero baino beharago jarri genuen 1.kanpamendua; elurra urtu eta ur asko edan genuen. Geroxeago laino batzuk azaldu ziren eta Beheko Kanpamendura jeitsi ginen. Lehenengo harremana mendiarekin gogorra izan zen; nekatuta geunden baina pozik.

Talde guztia.



-Gustoko lekuan aldaparik ez, esan du amaxok.

-Hurrengo egunean Rafa gaizki zegoen, buruko min handiarekin eta beherago joango zela adierazi zigun. Guk bitartean 2.kanpamendua montatu genuen, arazo handirik gabe, eta betiere goizago abiatuz eguerdiko beroak ez jasateko. Berriro jeitsi ginenean han topatu genuen Rafa buruko mina sendatuta, baina gau batean ikaragarritzko hotza pasa ondoren bi behatzetan "pupu" hartuta. Mendizale korearren artean baze goen mediku bat eta oso gaizki zeukala eta onena etxera bueltatzea zela esan zion, han ezin baitzen sendatu. Pena handiz jaso genuen albiste hori eta gu gailurra egiteko asmoarekin abiatu ginen bitartean, bera elikopteroa hartu eta etxerako bidean jarri zen, lehen bait lehen ailegatzeko, bestela behatz bat galtzeko arriskuan baitzegoen.

-Guk Rafa bisitatu eta behatza beltz-beltza

-Bai, Zaragozan ingresatuta geratu zen eta amatxorekin joan ziren ikustera. Hala ere txori txiki batek esan dit eraman zenizkioten bonboiak zeuk jan zenituela gehienak, ezta?

-Oso goxoak eta

-Baina hiru hilabete pasa ondoren orain Rafak nahiko ondo dauka behatza, nahiz ez den oraindik lanean hasi. Bada, gu berriro goialdera abiatu ginen eta 2.egunean 2.kanpamenduan geunden. Handik gora geneuzkan kezka handienak, bidea estutu eta oso aldapatsu bihurtzen zen eta (50-55°). Oso goiz abiatu ginen, hotza handia baina ilargia nahiko handituta zegoen eta argitasun piska bat ematen zigun. Bapatean azkena zetorren Luis desagertu egin zen; ni bere aurretik nindoan eta hots txiki bat entzun nuen, atzera begiratu eta arrastorik ez; hoska hasi nintzaion eta erantzunik ez. Txetxu aurreraxeago zihoan eta hasieran ez zen ezertaz konturatu. Segundu batzuk pasa ondoren Luisen garraixiak entzun nituen, hamarren bat metrotara eta bertan zulo bat zegoela ikustean okerrera pentsatzen hasi nintzen. Txetxu gureganatzen hasi zen. Inguratu nintzanean bi metro beherago zuloan zegoela ikusi nuen eta ondo zela adierazi zidan; motxilan neraman sokarekin laister irten zen. Susto latza hartu zuen, baina minik ez. Lehendik ere beste mendi batean, gau oso bat pasata zegoen zulo batean, elurrez inguratuta, eta horregatik du eskuko behatz bat motzagoa.

-Ez zarete beti lotuta joaten?

-Gehienetan bai, baina ustez arrisksuak ez diren lekutan ez, eta hara zer gerta daitekeen. Handik gora, kontuz kontuz, aldapa geroz eta handiago baitzen, gehienetan elu-



K.I-era iristen. 5.500 m.

rretan eta oso tarteka arkaitz gainean igo genuen, gure buruko linternarekin argia eginez. Batzutan aurreko urtetan mendizale batzuek utzitako soka lagungarriak topatu genituen, eta baita aprobeixatu ere. Eguna argitzearekin batera aldapa lehuntzen hasi zen eta azkenekoa izango zen 3.kanpamendua jartzeko leku aproposa topatu genuen, 7.100 metrotara. Luis, Txetxu eta hirurok oso animoso geunden mendi ezkutuaren gailurra lortzeko gehiena geure alde zegoela eta hurrengo egunean lortuko genuela baitzirudien, baina gualdean eguraldia txartzen hasi zen. Ordu batzutan atsedena hartu eta gaueko 10:30tan gailur aldera abiatu ginen, baina haizea geroz eta indartsuagoa zen eta elurra ere hasi zuen, eta hotza eta nekea nagusi genituen. Bazirudien mendi ezkutua haserre zela gu bere magalean sartuak ginelako.

-Eta zer egin?

-Buelt hartu eta itzultzea zela hoberena erabaki genuen. Hirugarren kanpamenduko babesa gustora hartu genuen, nekatuta geunden eta ni logure handiarekin. Lo egin eta hurrengo egunean eguraldi txarra zegoenez nik behera jeitea erabaki nuen, eta Txetxuk eta Luisek, berriz, beste egun batez bertan itxarotea pentsatu zuten, ea eguraldiak hobetzen zuen. Baina eguraldiak txarrera jo zuen eta, azkenean, denok Beheko Kanpamenduan elkartu ginen. Pena piska bat bageneukan gailurra ez genuelako lortu, baina beste aldetik, 3.kanpamendua montatua geneukan eta gorputza ere egokitu altuera haietara. Hurrengo saiakeran izan beharko! Hala ere, Luisek ekaitz egunean hotz handia pasa zuen esku eta hanketan eta beldur zen berriro ere izoztu ote zitzaizkion behatz batzuk. Hala izan zen baina oraingoan aurrekoan baino arinago; oraindik sandaliakin ikusi dugu, aurreko astean, zauriak itxita eta azkazalak irteten hasita.

-Eta igo zineten?

-Bai, baina egun batzuk pasa eta gero. Lehenbizi Beheko Kanpamenduan bi egun pasatu genituen, ilargi betearen eguna irisi zain; berarekin eguraldia hobetzen hasi zen.

-Horrelako ilargi potoloa?

-Bai, ematen duen argitasunarekin gehiena ikusten da, Etxaurreko zelaia, Urkullegi, baita Izazpi ere. Bada, han ere ikusgarria zen ilargiak eta inguruan geneuzkan mendi elurtu guztiek ematen zuten argia; egiten zuen hotz ikaragarriatik ez balitz gau guztia eseri eta ingurura begira pasatuko nukeen.

Eta horrela bi egun haietan indarrak eta animoak berriro eta gogor ekin genion igorari, bi egunetan 3.kanpamendura iritsiz. Hurrengo egunean, gaueko 12:30tan irten ginen hirurok, elurra tarteka bigun samarra zegoen baina haizeak jotzen zuenetan oso gogorra, krampoi puntak juxtu-juxtu sartuz. Aldapak 40-45° inguru zituen, baina dena




gora eta gora, batere lautadarik gabe. Zerua urdin-urdin eta haize piska bat eta, gehienetan bezala, oso hotz. Irten orduko bi oinak hoztu zitzaizkidan eta igotzen gindoazela ordu pare bat behar izan nituen berotzeko; handik aurrera ondo. Luis, aldiz, eskuak eta hankak berotu ezinda zebilen eta Txetxu piska bat aurreratu egin zen. Luis eta biok, gailurrerako ordubete falta zela, eguzkiak jotzen zuen babes batean geratu ginen, berotzeari ekiteko. Ordurarte gehiegi nekatu gabe igo ginen; oso goiz zen eta garbi geneukan gailurrera iritsiko ginela, eguraldiak bapatean aldatzen ez bazuen, behintzat, Atsedena hartu ondoren azkeneko aldapari heldu genion. Ez zen berehala bukatzen, igo eta igo, arnasa geroz eta estuago eta, halako batean, Txetxu ikusi genuen gel-dirik, hark beharko zuen izan gailurra! Goizeko bederatzia ziren iritsi ginenean, hura poza hura!, elkar besarkatu, argazki mordoska bat atera eta ordubete inguru gailurrean gelditu ginen eguraldiaz eta paisaiaz gozaten. Rafarekin asko akordatu ginen, laurok hasi baikenuen abentua hura. Eta, nola ez, zurekin eta amatxorekin eta...

-Eta gu aitaxorekin

-Bada, mendi ezkutuak bere gailurreko ateak ireki zizkigun eta bere edertasun guztia aurkitu genuen, gure pozerako; eta... hau egia zan baina sar dezakezu kalabazan eta saldu Ordiziako plazan, bihotza.



K.II 6.400 metrotara. Koke, Luis eta Txetxu.



Fotos expedición

G.II hirugarren kanpotik.

HIDDEN PEAK 95

ZENBAIT PASADIZU...

Txetxu Lete

8.000 batera bai, baina nora?

Ormaiztegiko jaiak urtebete lehenago:
 - Bi zurito, sei kalimotxo eta lau pittilingorri.
 - Bai oraintxe. Ah! Pakistanetik jaso diat eskutitz berri bat, bertan Nanga Parbat edo Hidden Peak igotzeko aukera ematen zigutek. Bostehun eta hirurogeitabost, mila esker.
 - Ze esaten ari haiz, eta Gil?
 - Beteta omen dago...
 - Zer egingo diagu orain saldatuko kamiseta guztiakin?
 - Gasherbrum II-ri marratxoa kendu eta berrogei metro gehiago jarri.
 Zortzi mila metrotako mendi batera joateko zehaztasun guztiak ondo eta sakonki pentsatuz egin behar dira.

Joan baino lehen zer?

Prestakuntza fisikoari garrantzi handia eman genion eta espedizioaren arrakastan zerikusi handia izan duela pentsatzen dut.

Gure aldetikagindutako guztia egiten saiatu ginen: Madrilgo aeroportuan batek ekipaia fakturatzan zuen bitartean beste biek 1000 metrotako seriak egiten genituen, 165/180 taupadaka minutuero eta tartean 30 segunduko atsedenaldirak eginez. Hegazkin barruan "fuerza/resistencia"-ko zirkuito bat montatu genuen, eta Rawalpindira ailegatzean traste guztiak hatu eta hotelera korrika abiatu ginan; hamabost bidai hiru pertsonen artean, bakoi-tzak bost bidai egin behar izan zituelarik. Hori bai arratsaldean atsedena hartu genuen.

Kanpo basera ailegatu bitartean...

Berez, hogeitabost porteadore eramateko prestakuntzak egin genituen, saiatu ere saia-

tu ginen. Eguardi aldean kanpoko beroarekin batera gure porteadore kopurua igotzen hasi zan: hogeitamar, hogeitamazazpi... eta horrela bukaerako berrogeitazortzi arte. Ez dakit zergaitik baina oso aurpegi alaiak ikusten ziran goruntza atera baino lehen, gureak ez noski.

Arroza, dhal eta patatak, "alu" bertako hiskeran, izan ziran gure eguneroko jakiak kanpo baserako zazpi eguneko trekin hortan, eta igoerako hogeitabost egunetan ere, baita beherako bidaian noski. Orain ulertzen deitz batzuen jatorria eta errealtatearen arteko harremana.

Besterik gabe kanpo basea jarri genuen, ekainak 26 zan eta ordu hoietan gaupasa egin eta gero etxerantz bueltatzen ariutuko ziren lagunak buruan genituen, San Juan jaiak bukatzean eta gure lana hastean.

Hemeretzi egun eta gailurra...

Gailurra lortzeko gogoia izugarria zan eta bertan egindako lana ere ez zan makala izan. Etxean egindako planak alde batera utzi, buruko minik ez eta goruntza abiatu ginan. Ezin sinistu, bederatzigarren egunean gailurra tentatzen, Rafakovitz, Kokeosi, Luisenaver eta Txetxunen bezalako izanak izan ezker agian bai, baina...

Bi urteko lanaren ordaina uztailak hamaseian jaso genuela esaten badet, ez dut uste egia izango zenik. Uztailak hamaseian gailurra egin genuen eta sari gisa oso ondo egon zen, baina uztailak hogeitaseigarrenean jeitsi eta gure lehenengo haragi puska dastatu genuenean, arroza, dhal eta "alu" alu hori alde batera utzita, hori bai poza hori...

Beraz bi alditan hain famatua egin den galdera hori entzuteko aukera izan dugu: "Zer sentitzen da momentu horietan?"

FICHA TECNICA

Montaña: HIDDEN PEAK ó GASHERBRUM I.

Altitud: 8.068 m.

Situación: Karakorum, Baltoro Mustagh, 35°43' lat. N/76°42' long. E.

Ruta seguida: Couloir de los Japoneses o Couloir Norte.

Nota: Se puede considerar como la nueva ruta normal a la montaña, ya que la antigua normal está prohibida por problemas fronterizos. La primera ascensión por esta ruta la realizan los japoneses O. Shimizu y K. Wakutsu el 02/08/86.

Expedicionarios:

TXETXU LETE, Urnieta (Gipuzkoa)
 KOKE LASA, Ormaiztegi (Gipuzkoa)
 RAFA BERASATEGI, Segura (Gipuzkoa)
 LUIS MIGUEL LOPEZ, Alcorcón (Madrid)

Salida: 12 junio 1995

Trámites: Islamabad, 13/14 junio

Aproximación: 15/26 junio

C.B. 5.200 m.: 26 junio
 C. I 6.000 m.: 29 junio
 C. II 6.600 m.: 1 julio
 C. III 7.100 m.: 8 julio
 Cima 8.068 m.: 16 julio

Resumen cronológico

27 junio/1 julio: Montamos el C. I y el C. II. El día 27 depositamos material a 5.750 m. y regresamos al C.B.; en los días sucesivos montamos el C. I y el C. II. Después regresamos al C. B. y tras descansar dos días decidimos realizar el primer ataque.

5/9 julio: Primer ataque. El día 5 salimos del C.B. y alcanzamos el C.I. Al día siguiente, 6 de julio, desmontamos el C.I y subimos al C. II. El 7 de julio hace ventisca y permanecemos en el C. II. El 8 de julio subimos el Couloir 50-55° con algún paso mixto y algunas cuerdas viejas que aprovechamos y montamos el C.III. El 9 de julio salimos hacia la cumbre pero la tormenta nos hace desistir a 7.600 m.

14/16 julio: ataque definitivo. Salimos del C.B. el 14 de julio y llegamos al C. II. El día 15 alcanzamos el C. III y el 16, subiendo por rampas de nieve e hielo de 40-45° TXETXU, KOKE y LUIS hacemos cumbre.

Nota: Rafa se vuelve a casa el 6 de julio por problemas de congelación en un dedo de la mano.